



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

ALBOKO KARGAKO IBILGAILUEN BIDEZ ETXEKO HONDAKIN ZATIKIAK JASOTZEKO EDUKIERA DESBERDINEKO EDUKIONTZIEN HORNIKUNTZA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen arabera egiten den kontratuaren xedea izango da 2.000 eta 3.000 litro inguruko (+/- 200 litro gehienez ere) edukiera desberdineko edukiontzien hornikuntza izango da, alboko kargako ibilgailuen bidez etxe hondakin zatikiak jasotzeko, baita sarrerak kontrolatzeko beharrezko elementuen hornikuntza eta instalazioa ere (hardwarea eta softwarea), bere elementu osagarriekin, horien artean txartelak, txartel kodetzaileak eta inprimagailuak, Baldintza Teknikoen Pleguan jasotako espezifikazio teknikoekin; kopuruaren zati bat aurretiaz zehazten da eta bestea ez, eta, azken kopuru horri dagokionez, kontratuak irauten duen bitartean Mankomunitateak kontratistari aldiro eskatzen dizkion kopuruaren menpe geratzen da. Mankomunitateak edukiontziak osatzen dituzten elementu jakin batzuk ere eskatu ahal izango ditu.

Aurretiaz zehaztutako horniduraren zatia honako hau da:

- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren 113 unitate, zatiki organikoa jasotzeko.
- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren 113 unitate, errefus zatikia jasotzeko.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren 165 unitate, ontzi arinak jasotzeko.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren 162 unitate, paper-kartoi zatikia jasotzeko.
- 2.000 l inguruko edukiontzien sarrerak elektronikoki kontrolatzeko 226 unitate.
- Sarrerak kontrolatzeko elementu osagarrien multzoa: txartela, txartel kodetzaileak eta inprimagailua: 11.000 txartel, 2 kodetzaile eta inprimagailua bat, funtzionatzeko behar duen softwarearekin.

Kodea CPV-08: 34928480-6.....

2. EPEA

Kontratuaren iraupen epea bi urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurreko baldintzan aurretiaz zehaztutako kopurua entregatzeko epea bi hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta ondorengo eskarietako bakoitzerako epea bi hilabetekoa izango da, dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatzen hasita.

Aipatu epea igaro eta gero kontratista berandutu egin dela ulertuko da, eta ez da beharrezkoa izango Udalaren intimazioa egiterik.

Hornidura mankomunitateak zehaztutako puntuan edo puntuetan entregatu beharko da, bere lurralde eremuaren barruan.

3. LIZITAZIOAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIO AURREIKUSIA

Kontratu honen modalitateen arabera, ez da guztira duen prezioa ezartzen, bera osatzen duten unitateena baizik, eta horietako bakoitzarena, BEZa kanpo, ondoren zehazten dena da, lizitatzailerek zenbateko horiek hobetu ditzaketelarik. Kasu honetan, kontratuaren balio aurreikusia 661.460 € da, BEZa kanpo.

Hornidurako unitate bakoitzaren lizitazio prezioa honako hau izango da:

- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren unitateak zatiki organikoa jasotzeko: 800 € unitateko.
- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren unitateak, errefus zatikia jasotzeko: 800 € unitateko.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren unitateak ontzi arinak jasotzeko: 900 € unitateko.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontziaren unitateak paper-kartoi zatikia jasotzeko: 900 € unitateko.

- 2.000 l inguruko edukiera duten edukiontzien sarrerak elektronikoki kontrolatzeko unitateak: 160 € unitateko.
- Sarrerak kontrolatzeko elementu osagarrien multzoa: txartela, txartel kodetzaileak eta inprimagailua: 11.000 txartel, 2 kodetzaile eta inprimagailua bat, funtzionatzeko behar duen softwarearekin: 8.000 €.

Ulertuko da unitateko prezioetan gastu guztiak sartuta daudela, baita garraioarenak ere.

Ulertuko da aurkeztutako proposamenetan, horniduraren prezioa ez ezik, horretatik ondorioztatzen diren zerga eta gastu guztiak ere sartuta daudela, entrega eta garraio gastuak barne.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa bat aurreikusita dago oraingo urteko aurrekontuaren kontu. Halaber, aurrekontuen gaietan eskumena duen organoak datozen ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak erreserbatuko ditu, dagokionean.

5. ORDAINTZEKO ERA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko era arau hauen arabera izango da:

- 1.) Aurretiaz zehaztutako horniduraren ordainketa entregatu eta jasotzen denean egingo da, dagokion faktura aurretiaz aurkeztuta.
- 2ª) Ondorengo eskariei dagokien ordainketa, horietako bakoitza entregatu eta jasotzen denean egingo da, dagokion faktura aurretiaz aurkeztuta.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspena egingo.

7. BERMEAK

Ekonomikoki onuragarrienak diren eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzailleek behin betiko berme bat eratzeko betebeharra izango dute, kontratazio organoaren eskura. Horren zenbatekoa lizitazioan aurreikusi den oinarrizko aurrekontuaren %5en parekoa izango da, BEZa kanpo.

Aipatutako berme hori eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da errekerimendua jaso den hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96 artikuluan ezarriko bitartekoetatik edozeinetan eratu ahal izango da.

Bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96 artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, bermearen epea amaitu eta gero eta esleipendunak kontratuko bere betebeharrak guztiak bete eta gero.

8. KONTRATUA GAUZATZEA

Ondasunak plegu honetan ezarritako denboran eta lekuan entregatu beharko dira, baldintza teknikoekin eta administrazio baldintzekin bat eginda. Halere, Mankomunitateak, kontratua gauzatzen den bitartean, bere eskumena gordetzen du itundutakoa ez beste leku bat zehazteko.

Kontratua kontratistaren gain eta galorde gauzatuko da, eta horrek ez du kalte-ordainetarako eskubiderik izango Mankomunitateari ondasunak entregatu aurretik horietan gertatu daitezkeen galera, matxura edo kalteengatik, ez bada Mankomunitatea berandutu egin dela horiek jasotzeko orduan.

Kontratua Mankomunitatearen zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean gauzatuko da, eta eskumen horiek erabiliko ditu idatziz zein ahoz.

Kontratatari edo bere menpeko pertsoneri egotzi dakizkiekeen ekintza edo omisioengatik kontratuaren martxa egokia arriskuan jartzen bada, Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen

dituen neurriak hartzeko exijitu ahal izango du kontratuaren gauzapenean egoera zuzena lortzeko edo berreskuratzeko.

9. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratistak lan arloan, Gizarte Segurantzakoan eta laneko segurtasun eta higienekoan indarrean dauden lege xedapenak betetzeko betebeharra du, eta Mankomunitatea arau-hauste horietatik salbuetsita geratzen da.

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEA HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratista kontratua gauzatzeko behar diren operazioetan gertatzen diren kalte eta galeren erantzulea izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214 artikuluan xedatutakoaren arabera.

11. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Mankomunitateak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 107 artikuluan xedatutako egoeretako bat gertatzen bada, betiere horrekin ez badira lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen.

Lehen aipatutako aldaketa posibleak derrigor bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.

12. HORNIDURA JASOTZEA ETA GARANTIA EPEA

Hornidura entregatzen denetik gehienez ere hilabete bateko epean, hori hartu delako egintza formala eta positiboa egingo da.

Hornidura ez badago jasotzeko egoeran, berriaz jasoaraziko da, eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak konpontzeko edo beste hornidura bat egiteko, hitzartutakoaren arabera. Akatsak konpontzen ez badira edo gaiak ez badira ordeztzen, Administrazioak

kontratataren esku utziko ditu, eta ordaintzeko betebeharretik libre geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea bereganatuko du.

Halaber, urte bateko epea ezartzen da, harrera formalaren datatik kontatzen hasita, garantia moduan ezarrita, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta

Mankomunitateak, bermearen epean zehar, eskubidea izango du hornitutako ondasunetatik okerrak edo akatsak dituztenak ordeztzeko edo konpontzeko, nahikoa baliz.

Bermearen epean zehar Mankomunitateak egiztatuko balu hornitutako ondasunak ez direla egokiak nahi zen helbururako, kontratistari egotz dakizkiokeen okerrak edo akatsak direla eta, eta hautemango balitz horiek ordeztea edo konpontzea ez dela xedea betetzeko nahikoa, aipatu epe horren barruan ondasunak atzera bota ahal izango ditu eta kontratataren kargu utzi.

13. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK EZ BETETZEAGATIK

A. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratatistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egiten bada kontratua gauzatzeko epea betetzeari dagokionez, izan epe osoa zein epe partzialak, Administrazioak kontratua bertan behera utzi edo zigorrak ezarri ditzake, eguneko 0,20 euroko proportzioan kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Berandutzeagatik sortutako zigorrak kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua bertan behera uztea edo gauzatzeko jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOAK PARTZIALKI EZ BETETZEA

Kontratatistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioak partzialki gauzatu gabe uzten baditu, Udalak kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren %10en pareko zigor bat ezartzea erabaki dezake, bietako edozein.

14. KONTRATUA BERTA BEHERA UZTEKO ARRAZIOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 229 artikuluetan xedatutakoak dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Udalari eskumen hauek dagozkie: kontratua interpretatzea, betetzeko sortu daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, bertan behera uztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren eta mugen barruan eta horien baldintza eta ondorioekin.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena prozedura irekiz egingo da.

Kontratua esleitzeko oinarritzat balioko dute eskaintzak baloratzeko irizpideak eta horiei ematen zaien haztapena honako hauek dira:

- .Proposamen ekonomikoa: %50.
- Dokumentazio teknikoa: %50

Aipatu **irizpideetatik, balorazioko iritziaren arabekoak** eta balorazio automatikoaren aurretik baloratuko direnak honako hauek izango dira:

- Debagoieneko Mankomunitateak erabilgarri dituen jasotzeko eta garbitzeko bitartekoetara egokitzea: 25 puntu. Atal horretan baloratuko dira:
 - Debagoieneko Mankomunitateak jasotzeko erabiltzen dituen ibilgailuetarako egokitzea, hau da, OMB markako kamioietara.
 - Mankomunitateak garbitzeko erabiltzen duen ibilgailuak erabili ahal izateko egokigarritasuna (OMB, LMPL modeloa).
 - Edukiontzia garbitzeko eraginkortasuna, edukiontziak garbitzeko ibilgailuaren bitartez.
- Edukiontzien ezaugarri teknikoak eta funtzionalak: 15 puntu. Atal horretan baloratuko dira:

- Neurriak, okupatutako azalera, pisuak, materialak, akaberak, material birziklatuaren erabilera, herritarrak iristeko ahoen altuera, edukiontzia osatzen duten material plastikoen suaren kontrako ezaugarriak.
- Hondakin zatikia identifikatzeko beharrezko argitasuna.
- Edukiontzian sartzeko eta deskargatzeko zereginetan sortzen den zarata.
- Kalean instalatzeko kokapenerako elementuen hornidura.
- Sartzeko eta deskargatzeko tapak; horiek indarrez behartzeko aukera, edukiontzietan arautu gabeko moduren batean sartzeko.
- Edukiontziak osatzen dituzten zatiak muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna.
- Aurkeztutako modeloak eskaintzan zehaztutako espezifikazioekin duen antzekotasuna (baita sartzeko kontrola ere).
- Sarrerak kontrolatzeko sistemaren ezaugarri teknikoak eta funtzionalak: 10 puntu.
Atal horretan baloratuko dira:
 - Sendotasuna, kolpeekiko erresistentzia eta estankotasuna ura turrustan botatzen denerako.
 - Itxitura irekitzeko erraztasuna. NFC protokoloaren bitartez irekitzeko aukera.
 - Itxituretako datuak iraultzeko edo atzitzeko aukera, RFID-UHF edo irrati sistemaren bidez.
 - Muntatzeko eta mantentzeko zereginen erraztasuna: itxitura muntatzea eta desmuntatzea, pilak eta bateriak ordeztzea, kaltetutako karkasak ordeztzea...
 - Erregistratutako datuak deskargatzeko sistema.
 - Sarrerak kontrolatzeko sistemari elkartutako softwarea erabiltzeko sinpletasuna eta erraztasuna.

Balorazio automatikoaren irizpideak, hau da, proposamen ekonomikoa, honako formula honen bidez baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa unitateko eskainitako prezio bakoitzaren batura izango da, kontratuaren xedean zehaztutako hornidurako unitateekin biderkatuta, gehi elementu osagarri guztietarako eskainitako prezioa.

Balorazioa egiteko mekanika hau erabiliko da:

Ondartutako Proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua egiteko, interpolazio lineala erabiliko da, P1 puntuko (Gehienezko baxuena, Gehienezko puntuazioa) eta P2 puntuko (Zero baxuena, Gutxienezko puntuazioa) bi puntuekin definitutako zuzenaren arabera, eta puntu horiek mugatzen duten zuzen horren segmentuaren arabera.

Aipatutako puntu horiek hauek dira:

P1 – Eskaintza merkeenari dagokiona (Gehienezko baxuena), zeinari Pmax puntuko puntuazioa emango zaion, gehienezko puntuazioa.

P2 – Esleipen Motari dagokiona, zeinari gutxienezko puntuazio emango zaio, honako formula honen arabera:

Gutxienezko puntuazioa, Esleipen Motari dagokiona:

$$P_{\min} = P_{\max} \times (1 - B_{\max} \times 3)$$

Non, B_{\max} = Gehienezko baxuena den

Baxuentzat (B) ulertzen da esleipen motaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, esleipen motarekin zatituta.

P_{\min} kalkulua negatiboa balitz, $P_{\min} = 0$ dela joko da.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako oinarritzko eskaintzak baino ez dira kontuan hartuko.

Berez, edozein proposamen neurrigabetzat edo arinkeriartzat jo ahal izango da, baldin eta bere portzentajea gutxienez onartutako oinarritzko proposamen guztien portzentajeen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate baino gehiago bada, eta hori deklarazteko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, bertan sartzan diren lizitatzaile guztiei aurretiaz informazioa eskatu eta gero, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza jaso eta gero.

17. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria:

- Inazio Azkarragaurizar Larrea, Mankomunitateko lehendakaria

Mahaikideak:

- Leire Egaña Arregi, Ingurumen Batzordeko lehendakaria
- Mikel Jaio Eiguren, Ingurumen Zerbitzuko arduraduna.
- Luis Lonbide Sagastizabal, Ingurumen Zerbitzuko Esplotazioko arduraduna.
- Ander Elortondo Bergaretxe, Mankomunitateko behin-behineko kontu hartzailea
- Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin-behineko idazkaria

Idazkaria:

- Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin-behineko idazkaria

18. KONTRATATZEKO AHALMENA

Kontratatzekeo prozedura honetan beren ahal men juridiko eta jarduteko osoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek parte hartu ahal izango dute, beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta ez badaude Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. Artikuluan kontratatzekeo ezarritako debekuetan sartuta. Kaudimena 20. baldintzako e) letran ezarritako bitartekoan bidez egiaztatu eta baloratuko da.

Halaber, berez egin ahal izango da edo pertsona baimendunak ordezkaturata, xede horretarako emandako ahalordearen bitartez. Pertsona juridiko bat ordezkaturaz bere kide bat agertzen denean, agiri bitartez egiaztatu beharko du horretarako ahalmena duela. Egoera batean zein bestean, ordezkariari kontratatzekeo aipaturako ezintasun arrazoiak egokituko zaizkio.

Enpresariak, halaber, kontratu honen xedea den jarduera edo prestazioa egiteko exijitu daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, baita berari lotutako dokumentazio tekniko ere, Mankomunitate honetako Idazkaritzan aztertu ahal izango da, 8:00etatik 14:00etara, egun baliodun guztietan, lizitazioaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Europar Batasuneko Egunari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, eta proposamenak aurkeztekeo epea amaitzen den arte.

Proposamenak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko dira, adierazitako leku eta ordu berberetan, deialdiaren iragarkian ezarritako epearen barruan.

Esleipena, halaber, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta bertan sartzeko atari informatiko edo webgune hau erabili ahal izango da: www.debagoiena.com. Gune horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango da.

Lizitatzailleek pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori proposamenak jasotzeko ezarritako azken data baino sei egun lehenagoko epean emango da, betiere eskaera proposamenak jasotzeko lehen adierazitako azken data baino zortzi egun lehenago egin bada.

TRLCSParen 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeen barruan eman, eta eskaintzak tokian tokiko bisita bat egin eta gero edo pleguari atxikitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu eta gero baino ezin izan badira egin, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragindako haitagaiek eskaintzak formulatzeko behar duten informazio guztia ezagutu ahal izateko komenigarritzat jotzen den denboran.

Jasotzeko ezarritako epearen ondotik jasotako proposamenak ez dira onartuko, baina jasoarazi egingo da Correosen epea amaitu aurretik entregatu zirela, Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz eskaintza bidaltzeko dataren justifikazioa bidali ezean, postaz bidali zen egunean bertan. Iragarkia posta elektronikoz bidaltzeari dagokionez, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 80.4 artikuluan baliozkotasunari buruz xedatutakoa ezarriko da.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzailleek hiru gutun azal itxi aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C), eta bakoitzean "EDUKIONTZIEN HORNIDURA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA" idatziko dute.

Gutun azal bakoitzean enpresaren izena, proposamena izenpetzen duenaren izena eta abizenak eta zer izaerarekin izenpetzen duen, gutun azal biak ere izenpetuta egon beharko direlarik.

“A” gutun azalari “KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA” azpтитulua jarriko zaio eta honako agiri hauek izango ditu:

a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren agiriaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari jarduten bada, notarioaren aholkoria ere bai, erakunde honek gutun azal honekin batera aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazio prozesuan askietsiko duena.

b) Lizitatuak pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura edo, kasuan kasu, aldaketarena, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, aplikatu behar zaion merkataritza legearen arabera inskribapena exijitzekoa denean. Hala ez balitz, jarduteko ahalmena duela egiaztatzeko eraketa eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza erabiliko dira, beren jardueraren araubidea jasoko dutenak, horiek denak dagokien Erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.

Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoen enpresari ez espainiarrak direnean, enpresa duten Estatuakoen legearen arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute edo aplikagarri zaizkien Europar Erkidegoko xedapenen arabera zintzeko aitortpena edo egiaztagiria aurkeztu.

Atzerriko beste enpresariak, berriz, jarduteko ahalmena dutela egiaztatzeko dagokien Estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresak egoitza dueneko lurralde eremuko Bulego Kontsularrarena aurkeztuko dute.

c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60 artikuluan zerrendatuta datozen kontratatzeke debekuetan sarturik ez egoteari buruzko berriazko deklarazioa, eta horren barruan sartuko da espresuki indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela, bi egoera horiek egiaztatzeke agiriak ematen badira izan ezik.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztatzea, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, uneko ekitaldiari badagokio, edo JEZaren azken egiaztatzea, gainerako kasuetan, eta bi egoeretan erantzukizuneko deklarazio bat ere emango da, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela adierazteko.

e) Lizitzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztapenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 75 artikuluan b) letran eta 77 artikuluan a) letran ezarritako bitartekoen bidez.

Aipatutako bitartekoei dagokienez, enpresek kontratu zehatz honetarako bete beharko dituzten gutxienezko kaudimen betekizunak hauek dira:

- Arrisku profesionalengatik kalte-ordainetarako 600.000 €-ko edo zenbateko handiagoko aseguru bat badagoela justifikatzen duen agiria.
- Azken hiru urteetan kontratu honen xede den horniketaren antzekoak egin izana egiaztatzen duen agiria.

f) Lizitaziora jotzeko hainbat enpresarik Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratu badute, hori osatzen duten enpresetako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta halaber konpromisoa erakutsi beharko dute esleipendun gertatuz gero formalki ABEE eratzeko. Halaber, ABEEko kide bakoitzak xedearen zein proportzio egingo duen adieraziko dute, guztien kaudimenaren gaineko baldintzak zehazteko eta egiaztatzeko.

g) Atzerriko enpresentzat, maila guztietako Epaitegi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jartzeko deklarazioa, kontratutik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen gertakizun guztietarako, eta, dagokionean, lizitzaileari egoki dakioken atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.

h) Prozedura honen jakinarazpenak egiteko erabiliko den helbide elektronikoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 151 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta ondorioetarako.

Aurreko a), b) eta e) letratan adierazitako baldintzak egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren egiaztapen bat, Espainiako Lizitzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialarena edo Sektore Publikoko

Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 84 artikuluan ezarritakoaren arabera sailkapen egiaztagiri komunitarioa erabil daiteke. Egiaztagiri horri gehitu beharko zaio lizitzailearen erantzukizun aitortpena, non egiaztagiri horretan adierazten diren baldintzak aldatu ez direla esango baitu.

Aurreko ataleko egiaztagiria elektronikoki egin ahal izango da.

Agiri horiek denak originalak izango dira edo, bestela, behar bezala konpultsatuta egon beharko dira.

A GUTUN AZALEKO dokumentazio hau hasieran aurkeztu ordez lizitzaileak erantzukizuneko aitortpena aurkeztu dezake, II. Eranskinen ereduaren arabera. Aitortpenean adierazi beharko du proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean Administrazioarekin kontratu bat izenpetzeko legez ezartzen diren baldintzak betetzen dituela. Kasu horretan, lizitzaileak, esleipen proposamena egokituz gero, kontratua eskuratu aurretik kontratazio organoaren aurrean egiaztatzea beharko du eskatzen diren dokumentuak badituela eta baliokidunak direla.

"B" gutun azalari "BALIO IRIZPEN BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK" azpiztitulua ezarriko zaio eta gutxienez honako hauek izango ditu:

- Proposatutako edukiontzien ezaugarri tekniko eta funtzionalen xehetasunak.
 - Edukiontzien sistemaren ezaugarri teknikoaren azalpen zehatza, hauek barruan direla: neurriak, ahoetara arteko altuera, materialak, akaberak, atalen planoak, koloreak, argazkiak edo ikuspuntu teknikoak sistemak hobeto azaltzen dituen beste edozein informazio grafiko. Informazio hori paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da.
 - Iraunkortasun, erresistentzia, UV izpiekiko babes, su hartzeko ezintasun, zarata, eta beste ezaugarri batzuei lotutako egiaztagiriak.
 - Funtzionamendu eta zaintzarako eskuliburua.
- Sarbideen eta elementu osagarrien kontrolerako ekipamenduen ezaugarri tekniko eta funtzionalen xehetasunak (txartelak, kodegailuak eta inprimagailua):
 - Sarbideen kontrolerako sistemaren ezaugarri teknikoaren azalpen zehatza, hauek barruan direla: neurriak, sarbideetatik itxurara arteko altuera,

materialak, pisuak, akaberak, atalen planoak, koloreak, argazkiak edo ikuspuntu teknikoak sistemak hobeto azaltzen dituen beste edozein informazio grafiko. Informazio hori paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da.

- Elementu osagarrien ezaugarri teknikoak (txartelak, kodetzeko elementuak eta inprimagailua).
- Iraunkortasun, kolpeakiko erresistentzia, eta edukiontzietan instalatutako elementuei ura jaurtiz gero beharrezko estankotasun indizeari lotuta bete behar dituzten baldintzak badituztela egiaztatzen duten agiriak.
- Erabilitako elementu elektronikoak eta softwarea erabiltzeko eta zaintzeko eskuliburuak.
- Erabiltzaileekin eta mantentze lanez arduratuko diren langileekin egingo diren formazio saioen iraupena eta bertan landuko diren gaiak.

“C” gutun azalari “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK” azpitulua jarriko zaio, eta honako dokumentu hauek izango ditu:

- a) Proposamen ekonomikoa I.Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
- b) Unitateko eskaintzen diren prezioen xehetasunak Prezioen xehetasun horiek izango dira kontratuaren iraupenean zehar Mankomunitateak edukiontzirako eskatzen dituen elementu zehatzei aplikatuko zaizkiena. Xehetasun horretan elementu hauek sartuko dira:
 - Edukiontzia gorpuztea, hauek barruan direla: posizionatzeko elementuak eta horiek gorpuztera lotzeko beharrezkoak diren elementuak.
 - Zati bakoitzerako tapak, hauek barruan direla: pistoiak, burdineria, torlojuak, eta instalaziorako eta behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den beste edozein elementu.
 - Ibilgailuek edukiontzia kargatzeko instalatuko diren elementuen sorta, hauek barruan direla: burdineria, buloiak, torlojuak, eta instalaziorako eta behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren beste elementu batzuk.

Inola ere elementu hauen prezioen batura ez da edukiontzi osoaren prezioa baino handiagoa izango.

Kontratu honen xede diren unitateko prezio guzti-guztiak eskaini behar dira, goian zehaztutako edukiontzien elementu bakoitza zehaztuta.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez betetzeak aurkeztutako proposamena osorik baztertea ekarriko du.

Proposamenak aurkeztean, lizitatzailerak edukiontzi mota bakoitzaren **eskala errealeko modelo** bana aurkeztu beharko du gutxienez, litro kopuru eta neurri desberdinekoak, muntatuta eta %100 operatiboa, Baldintza Teknikoen Pleguan zehaztutako baldintzetan, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten proba guztiak egin ahal izan ditzaten.

21. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATAMENDUA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako hauek egingo dira:

1. "A" GUTUN AZALA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOAREN TRATAMENDUA

Mahaiak "A" gutun azalean datorren dokumentazioa kalifikatuko du. Horretarako, lizitatzailerak ahalmenari eta kaudimenari buruzko azalpenak edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira, eta aurkeztetikotan Administrazio Publikoen Kontratazioari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 22 artikulua xedatzen duenaren arabera egingo da, bost egun naturaleko epean. Azalpen edo informazio osagarria eskatzetikotan, Mahaiak ahoz jakinaraziko die interesdunei, eta, era berean, kontratazio organoaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean iragarriko dira. Modu berean, aurkeztutako dokumentazioan konpondu daitezkeen akatsak egonez gero, Mahaiak lizitatzailerak interesdunei jakinaraziko die, hiru egun baliodunetan, aipatutako Erregelamenduaren 81 artikulua xedatzen duenaren arabera antzemandako akatsak zuzendu ditzaten.

2. ENPRESAK AUKERATZEA

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, kasuan kasu, antzemandako akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Mahaiak aukeraketa irizpideekin bat datozen enpresak zehaztuko ditu, eta lizitaziorako onartutakoak jakinaraziko ditu berariaz, bai eta baztertutakoak ere, zergatik baztertu diren adierazita.

3. "C" GUTUN AZALAREN JENDAURREKO IREKIERA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo bosgarren egun balioduneko hamarretan, eta hurrengo astelehenean, esandako eguna larunbata bada, eta lizitatzaileraren batek bere proposamena posta bidez igorri ez badu behintzat, orduan gutun-azalak Administrazio Publikoen Kontratazioari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 80 artikulua aipatzen duen epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean irekiko baitira, B gutun-azala irekitzeko jendaurreko ekintza egingo da.

4. "C" GUTUN AZALAREN JENDAURREKO IREKIERA

"B" gutun azala ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren, "C" gutun azala irekiko da jendearen aurrean, kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan.

Ekintza horretan eskaintza bakoitzean balio irizpen baten menpe dauden irizpideen eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

5. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak garrantziaren arabera sailkatuko ditu Mahaiak, eta kontratua esleitzeko proposamena, berriz, esleipena egingo duen kontratazio organora bideratuko du.

TRLCSParen 152. artikuluan xedatutakoari jarraituz, proposamen bat edo hainbat neurritz kanpokotzat edo anormaltzat jotzen denean, aurrez proposamena aurkeztu duen lizitatzaileri (edo lizitatzailerei, hala badagokio) entzun beharko zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko egin beharko da.

Kasu honetan, lizitzaileak emandako arrazoiek eta txostenak aintzat hartuta, kontratazio organoak ekonomikoki onuragarriena den proposamena egiten duen lizitzaileari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki onuragarriena den proposamenaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako guztiaren berri emango da espedientean, derrigor idatziko diren aktetan jasota.

6. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI

Aurrez aipatutako egin beharrekoak egin ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako jarduerak egin ditzala eskatuko zaio:

- a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagirak aurkeztea, hala badagokio.
- c) Hala badagokio, laneko arriskuak prebenitzeari buruzko agiriak aurkeztea.
- d) Hala badagokio, A gutun azaleko agiriak aurkeztea.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitzaileak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitzaileari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleituko du kontratua. Esleipena lizitatzailer guztiei jakinaraziko zaie eta erakunde honen kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatutako agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Kontratuak kontratazioaren alorreko errekurtsio berezia jartzeko aukera eskaintzen duenez TRLCSParen 40.1 artikulua araber, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerari eta hautagaiei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik. Epe horretan, aipatutako errekurtsioa jar daiteke eta hala gertatzen bada, kontratatze prozeduraren izapideak bertan behera geratuko dira errekurtsioa ebatzi arte, zeina TRLCSParen 40. eta hurrengo artikuluen araber emango baita.

Aipatutako hamabost egunak errekurtsorik jarri gabe pasatzen badira, esleipendunari kontratua formalizatzeko eskatuko zaio bost eguneko epean errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA ESKUDUNA

23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta plegu honen araber eta gehitu zaion gainerako dokumentazio teknikoaren araber arautuko da. Beran aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek ezarritakoa beteko da: Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa; Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, partzialki garatzen duen 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa; Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, onartua,

3/2011 Legegintzako Errege Dekretuari kontra egiten ez dion guztian; eta, dagokionean, Administrazio Publikoen kontratazioan ezarri beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Partikularren Plegu honen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazioaren artean kontraesana gertatzen bada, Plegu honetan ezarritakoa nagusituko da.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonaletarako sarbidea eragiten badu, kontratistak TRLCSParen Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarritik eratortzen diren betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoari, abenduaren 13koari, eta hori garatzeko araudiari dagokionez.

25. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

Kontratu honetatik ondorioztatu daitezkeen gai arazotsuak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta horren erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta zuzenean inpugnatu ahal izango dira administrazioko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, dagokionez, kontratazio gaietarako errekurtsio berezia jartzeko aukeraren kalterik gabe, TRLCSParen 40tik 49ra arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, araututako edozeinetan xedatutakoaren arabera.

Arrasaten, 2014ko maiatzaren 8an.

DILIGENTZIA.- Mankomunitateko Gobernu Juntak 2014ko maiatzaren 15ean egindako saioan Plegu hau onartu zuela jasoarazteko.

Arrasaten, 2014ko maiatzaren 16an.

IDAZKARIA

I. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

..... jaunak/andreak,
helbidea

PK....., NAN zk....., telefonoa.....

e-mail....., erabateko ahalmen juridikoa eta jardutekoa
duelarik, bere izenean

(edo

ordezkatzuz, helbidea

PK....., telefonoa....., eta NAN edo IFK zk. (pertsonea fisikoa
edo juridikoa den).....), Debagoieneko Mankomunitateak edukiontzien
hornidura kontratatzeke prozeduraren jakitun:

1. Konpromisoa hartzen dut hori gauzatzeko ondoren zehazten diren unitateko prezioak aplikatuz ateratzen den prezioan, eta kontratuan aurreikusitako iraupenaren epean. Ulertuko da prezio horietan gastu guztiak sartuta daudela, garraioakoak barne.
 - 2.000 l inguruko edukiera duten edukiontzien unitateak zatiki organikoa jasotzeko: € unitateko, gehi € , BEZaren %....(r)i dagokiona.
 - 2.000 l inguruko edukiera duten edukiontzien unitateak errefus zatikia jasotzeko: € unitateko, gehi € , BEZaren %....(r)i dagokiona.
 - 3.000 l inguruko edukiera duten edukiontzien unitateak ontzi arinak jasotzeko: € unitateko, gehi € , BEZaren %....(r)i dagokiona.
 - 3.000 l inguruko edukiera duten edukiontzien unitateak paper-kartoi zatikia jasotzeko: € unitateko, gehi € , BEZaren %....(r)i dagokiona.
 - 2.000 l inguruko edukiontzien sarreraren kontrol elektronikoko unitateak: € unitateko, gehi € , BEZaren %....(r)i dagokiona.
 - Sarrerak kontrolatzeko elementu osagarrien multzoa: txartela, txartelen kodetzaileak eta inprimagailua: 11.000 txartel, 2 kodetzaile eta inprimagailu bat, funtzionatzeko beharrezko softwarea barne: 8.000 €, gehi € , BEZaren %....(r)i dagokiona.
2. Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Baldintza Teknikoen Plegua eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ezagutzen ditut, eta berriaz onartzen eta men egiten diet.

3. Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko.

..... (e)n, 20..(e)ko, arena.

Sinadura

II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak, helbidea
..... eta NAN zk., erabateko gaitasun
juridikoa eta jardutekoa duelarik, bere izenean (edo ordezkatzuz,
helbidea eta IFK), Debagoieneko Mankomunitateak
EDUKIONTZIEN HORNIDURA kontratatzekeo prozeduraren jakitun.

ADIERAZTEN DUT

Enpresa lizitatzailleak Administrazioarekin kontratatzekeo legez ezarritako baldintzak betetzen dituela eta, esleitzeko proposamena bere alde ateraz gero, konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean egiaztatzekeo, kontratua esleitu baino lehen, 20. baldintzan A. gutun azalean exijitzen diren agiriak dituela eta baliodunak direla, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 146.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

..... (e)n, 20..(e)koaren ...a.

Sinadura